

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteartea, 2012ko urriaren 9a. IX. urtea. 2.412. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Sanjoanetako bordondantzari buruzko DVDA prestatu du Udaberrik

Tolosako dantza taldeak 55. urteurrena ospatzeko bertso afari bat ere antolatu du urriaren 2orako; Zerkausian izango da **o2**



Udaberri taldeko Barrenetxea, Artutxa eta Sarasola aurkezpenean. I. URKIZU



J. MONARTE

→ **Tolosak jaso du lekukoa.** Datorren urteko Kilometroak jaia Tolosako Laskorain ikastolak antolatuko du, eta herenegun jaso zuten Antton Mendizabal eskul-toreak egindako lekukoa. Lehenik eta behin, ikasleek eskuz esku pasa zuten orogitarra eta gero, Tolosako Ibai Iriarte alkateak (erdian) hartu zuen. Irudian alkatearekin batera Inaki Irazabalbeitia Euskara zinegotzia eta Joxan Oiz ikastolako lehendakaria daude. **o5**

### Jon Rekondo bigarren izan da Nafarroako Aizkora Txapelketan

Floren Nazabalek irabazi du, eta 5 minututik gorako aldea ateratu dio Leitzako aizkolariari **o6**

### Aitziber Ibarbiak bigarren postua eskuratu du Anboto Bertikalean

Zizurkildarrak Euskal Herriko Zirkuitua irabazi du; Ait Chaou billabonatarra bigarren izan da **o7**

### Kirolari guztiek izango dute lekua Tolosako teknifikazio zentroan

Usabal kiroldegian dago; urriaren 18an Saenz biologo eta nutrizionistak hitzaldia eskainiko du **o2**

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Hitzaren harpidedunentzat

**30 €**

Udazken honetan  
jantzi HITZArekin!

- Kirola egiteko aproposa den txalekoa
- Barrukaldean fibra mikropolarra
- Paseatzeko aproposa

Egin eskaria:

Telefonoz: 943 65 56 95

edo gerturatu HITZAren Tolosako egoitzara: Araba etorbidea 5, behe





Datorren urriaren 20an ospatuko du bere 55. urtemuga, Udaberri dantza taldeak. I. URKIZU

## Udaberriren 55. urteurrena ospatzeko, bertso afaria izango da hilaren 20an

‘Egun batez 25’ DVDaren aurkezpena ere egun berean izango da; Bordondantza izango du hizpide

**I. Urkizu** Tolosa

Zerkausian afaldu eta bertso doinuez gozatzeko aukera izango da, datorren urriaren 20an, Udaberri dantza taldeak antolatuta. 55. urteurrena ospatzeko bi jarduera nagusi antolatu ditu talde tolosarrak, eta San Joan eguneko bordondantza inguruko DVDa ere egun berean aurkeztuko dute, beraz; guztia, 55. urtemugaren harira.

Jai giroan murgilduz, triki-poteoarekin emango diete hasiera ospakizunei. Plaza Zaharretik 19:00etan abiatuko da, Alde Zaharreko kaleetan kalejira eginez. 21:00ak aldera, berriz, bertso afaria izango da Zerkausian.

Amets Arzallus, Alaia Martin

eta Iker Zubeldia ariko dira kantuan, eta bertan afaldu eta bertsoak entzuteko txartelak, datorren ostiralek aurrera eskuragarri izango dira, 20 euroren truke, Denak, Orbela, Ikatza eta Raku tabernetan. 200 laguntzako lekua izango da Zerkausian.

**Bordondantza barru-barrutik** Urriaren 20an, ordea, 18:00etan hasiko dira Udaberriren ibilbidea gogora ekarriko duten ekitaldiak. Izan ere, *Egun batez 25* DVDaren aurkezpena izango da udaletxeko pleno aretoan. San Joan eguneko bordondantza izango da hari nagusia, baina agerraldian Udaberriko Maitena Sarasolak, Itsaso Barrenekxeak eta Irati Artutxak azaldu dutenez, «ohiko dokumental formatutik haratago joan, eta ekainaren 24aren bueltan hain ohikoak ez diren irudiak» ikusi ahal izango dira.

Urteetan zehar desagertuta egon ondoren, Udaberri dantza taldeko kideek Tolosako Bordondantza berreskuratzeko lan han-

dia egin zuten aurreko hamarkadetan. Horregatik, «eta kontuan izanik urteurren ezin dela ospatu iragan belaunaldietako jendeak eginiko lanik gabe», gaur egun dantza taldean ari diren kideek gai hau aukeratu dute, dokumentala burutzeko: «Egokia iruditu zitzaigun gai hau hartuta, egun horretarako prestakuntzari buruzko dokumental bat egitea, San Joan eguneko umez haratago».

Bordondantza bera urtean behin burutzen den arren, Udaberriko kideek, «horren guztiaren atzean prestakuntza lan handia» dagoela azpimarratu dute: «Inork gutxi daki Aste Santua pasa orduko hasten direla dantzariak entseguetan, eta are gutxiagok, egun zehar kaleak apaintzen dituzten lizar hostoak dantzariak euren ebakitzen dituztela goizean goiz».

Horrela, beraz, bordondantzari baten begietatik ikusi eta entzungo da kontakizuna, hilaren 20ko aurkezpenan.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Zabalik da Usabalgo BPX teknifikazio zentroa

Pasa den ostiralean izan zen inaugurazioa, eta Bkool erakustaldia egin zuten hainbat txirrindularik

**I. Urkizu** Tolosa

Tolosako Usabal kiroldegian kirol teknifikazio zentroa zabaldu berri dute. Pasa den ostegunean izan zen inaugurazio ekitaldia, eta besteak beste, Tolosako alkatea Ibai Iriarte, Euskalteg Euskadi taldeko Migel Madariaga eta Euskal Herriko txirrindularitza federazioko Jose Luis Arrieta izan ziren ekitaldian. Guztiek, zentroa kirolari bultzada handia emateko bidea izango dela nabarmendu zuten.

BPXport enpresak eramango du zentroaren kudeaketa, baina arduradunek nabarmendu zuten, enpresaz gain, taldea ere

bada. Horrela beraz, «erronka berzia» dutela azpimarratu zuten: kirol kudeaketaz gain, kirol prestakuntza lantzearena.

Eliteko kirolari ezeez, kirolari guztiei zabalduko zerbitzuak eskainiko ditu zentroak: entrenamenduen diseinua, txirrindularitza aerodinamika, biomekanika, materialen aholkularitza teknikoak, mediku kontrolak, podologia, fisioterapia, nutrizioa, psikologia nahiz Bkool deritzon entrenamendu bertualen programa.

Hain zuzen ere, Bkool erakustaldia egin zuten ostegunean hainbat txirrindularik. Entrenamenduak bertualki irudikatzen modua eskaintzen du programa honek, eta txirrindulari batek baino gehiagok batera entrena dezakete.

Aipatzekoa da, datorren urriaren 18an, hitzaldia izango dela Richard Saenz biologo eta nutrizionistaren eskutik, 19:00etan, zentruan bertan.



Bkool erakustaldia izan zen inaugurazioan. I. URKIZU

## Alegiako gaztetxearen 25. urteurrenaren prestakuntzak

**I. G. L. Alegia**

Datorren abenduan Alegiako Gaztetxeak 25 urte beteko ditu, eta gaztetxeako kideak, hasi dira jada egitaraua osatzen. Astearteko biltzen ari dira, 19:00etan, gaztetxean, eta bileretara joateko deia egin dute.

Era berean, urteurrenako logo bat sortu nahi dute, eta ideia guztiak ongi etorriak izango direla azaldu dute.

Azkenik, 25 urteotako argazkiak, kartelak eta halakoak gorde ditzutenak, gaztetxeako kideei ematea eskatu dute, erakusketa baterako. Logo proposamenak eta argazkiak [alegikogaztetxea@gmail.com](mailto:alegikogaztetxea@gmail.com) helbidera ere bidal daitezke.

## Larri zauritu da Tolosako motor gidari bat, Huescan

**Erredakzioa**

Tolosar bat larri zauritu zen, igandean izandako moto istripu batean. Motorrean zihuan 32 urteko gizona auto batek jo zuen, aurrez aurre. Castejon de Monegrosen (Espainia) izan zen ezbehera, Espainiako Gobernuak jakinarazi duenez. Tolosarra helikopteroan eraman zuten Zaragozako Miguel Servet erietxera.

Pasa den ostiralean, berriz, onddo bila ari zen gizona hil zen Zizurkilen, Motxane base rriaren inguruan. Hildakoak 68 urte zituen eta Zizurkilgoa zen. Ertzaintzak helikopteroz eraman zuten gorpua, eta Donostiako auzitegi patologian autopsia egingo diote.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Likenak



## Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

**E**uskal Herriko basoak purretxiko zaleez beteko diren une honetan, gure basetako protagonista nahiko ezezagun batez hitz egingo dugu gure ekokulturaren txoko xume honetan. Beraz, onddo zale edo gibeldurdin zale zaren horrek, altxa burua lurretik minutu batez, eta bizidun oso berezi bat topatuko duzu zure sudur parean.

Ziur zuhaitz baten azalean, zoru edo harri baten gainean, itxura bereziko geruza marroi

edo berde bat ikusi izan duzula, ez dute ez onddo ez eta landare baten antzik ere. Forma laua izan ohi dute batzuk, besteek borobiltxo ugariz osatutako egitura beltzak osatzen dituzte, hosto formakoak ere badira eta baita muki laranja baten antza dutenak ere. Izaki bitxi hauek likenak dira, eta nahiz eta gure Euskal Herrian ez diren jaten, likenak ere izaki bizidunak dira eta begi egokiekien begiratuz gero, badute bai beraien xarma. Likenak, bi bizidun oso ezberdinen elkarbizitza edo sinbiosiagatik sortzen diren izaki bizidunak dira. Likenaren gorputz ikuskorra onddo batek osatzen du, likenari egitura eta forma emanez, baina onddo honek bere barnean algak edukitzen ditu.

Alga hauek ez dira itsasoan edo zubipean lehortzen topatzen ditugun antzekoak, hauek zelula txiki eta mikroskopikoak dira, eta landareak direnez, eguzki energiaren elikatzen dira onddoaren barruan. Esan genezake, onddo etxeko nagusia dela eta

alga, maizterra. Algak, maizter orok bezala, alokairu bat ordaindu behar dio onddoari bere barruan bizitzeagatik. Alokairu hau, algak lortzen duen eguzki energia da, eta energia honekin onddoarentzat elikagaiak sortzen ditu. Harreman estu honekin, algak uretatik kanpo bizitzeko leku egonkor bat du eta onddoak eguzki energiari, elikagaiak lortu ahal ditu. Baina nola hasi ote zen bi bizidun hauen arteko erlazioa? Joan gaitezen milioika urte atzera, zu eta ni lau hankako animaliatzar baldar ginen garaira. A ze garaia! Zirrikitu batetik garai hura ikusi ahalko bagenu... akabo telebista edo bideojokoak!

Orain milioika urte, alga bat, bizidunehar leporaino betetako itsaso oparotik atera egin zen, alga hau, mikroskopikoa zen eta itsasoz kanpo ezin zuen bere kasa bizi. Hala ere, mundu berri hura atsegin zitzaion, eguzki ugari baitzegoen eta ez zegoen inguruan berari eguzki energia preziatua lapurtuko zion beste algarik. Alga hura itsaso ertzean zegoen goiz batez, onddo bat gerturatu zitzaion. Algari onddoaren gorputza gustatu zitzaion eta onddoaren luzakin

tarlean, leku eroso eta umel bat ikusi zuen. Orduan algak, zera esan zion onddoari:

*- Hi potto! Hire barrun sartzen uzten badia, eguzki energia hartu eta hitzako elikagaiak ingo dizkit erregalon!*

Zorionez onddo ere Tolosaldekoa zen, eta erraz elkar ulertu zen algarekin, honela, bere barruan bizitzen utzi zion eta hementxe sortu zen likena deritzogun bizidun berria. Algak etxetxo bat zuen eta onddoak eguzki energiari elikagaiak lortu ahal zituen. Geroztik, munduan zehar arrakasta ikaragarria izan zuten likenek, inguru oso ezberdinetara egokitu ziren eta mundu osoan barrena zabalduta ziren. Izan ere, likenek erresistentzia handia dute, sarritan beste ezer hazten ez den arroka soilen gainean likenak hazten dira. Liken hauek, arroka soila zulatzen joaten dira, bertan lurra bilduz, lur honetan lehen landare kolonizatzaileak etorriko direlarik eta belardi edo baso baten sorrera bultzatuko dute.

Hala eta guztiz ere, likenak oso sentikorak dira aireko kutsadurakiko, batez ere, euri azido fatmatua sortzen duen azufre dioxido

doarekiko. Hain sentikor direnez, airearen kalitatea neurtzeko, likenak erabiltzen dira. Inguru baten, likenak desagertzen hasten badira, airearen kalitatea kaskartzen doanaren seinale da.

Indikatzaile eta erresistente izaeraz aparte, likenak, benetako elkarbizitzaren adibide dira. Alga soil bat ezin da bizi baso baten erdian, baina onddoarekin elkarlanean arrakasta handiz bizi daiteke eta onddoari, aldi berean, abantailak ematen dizkio. Ba al dago ezer hoiberik? Ezkontzak eta lehen urtebetetzeak oparoak diren garai honetan, elkarbizitzarako oso adibide egokiak ditugu likenak; bi ahulek elkarlanean boteretsu bat sortzen dute.

Zuen email eta iritzien elkarlanean, ziur zutabe xume hau zutabe handi bat egingo dela, beraz, jarraitu idazten [bioaniztasunetik@hotmail.com](mailto:bioaniztasunetik@hotmail.com) era, [bioaniztasunetik.com](http://bioaniztasunetik.com) bisitatzen da twitter-en lagun izaten. Sarritan, kalean zuzeneko iritziak ere jasotzen ditut, iritzi positibo zein negatiboak, azken hauek garrantzi handikoak zutabetxo xume hau hobetzeko, beraz esan lasai, zutabe xume hau zuena da eta!

## Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak →

# EH Bilduren eta EAJren arteko lehia, eskualdean

### Asier Imaz

Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak urriaren 21ean izango dira, baina kanpaina iragan ostiralean hasi zen, 00:00etan. Bi aste gelditzen dira aurretik, eta hautagaien argazkiak Tolosaldeko herri gehienetan ikus daitezke. Eskualdeko azken hauteskundearen emaitzak ikusiz gero, lehia bi alderdien artean egongo litzateke: EH Bildu eta EAJ.

Legebiltzarreko azken hautes-

kundeak 2009an egin ziren. EAJ izan zen alderdi bozkatuena, 8.198 botorekin. Egund, EH Bildu osatzen duten alderdien bozkak gehituz gero, hauek izango liratekeen garaileak, 8.338 botorekin. D3M legez kanpo utzi zuen Espainiako justiziari, eta hala ere, kutxetan 4.784 boto agertu ziren izen horrekin. Aralarrek 2.387 boto lortu zituen eta EAk 1.167. EAJ eta D3Mren atzetik, PSE-EE izan zen bozkatuena, 2.982 botorekin. Lehendakari postua hauek lortu zu-

ten, PPren babesarekin. Euskal Autonomi Erkidegoan, ordea, eserleku gehien EAJk irabazi zituen. Jeltzaleek 30 legebiltzarkide lortu zituzten; PSE-EEK 25 eta PPK 13.

Emaitza guztiak eta alderdien zerrendak kontuan hartuta, herriarrek eskualdeko bi hautagai aukeratu zituzten Gasteizerako: EAJko Bakartxo Tejeria billabonatarra, eta D3Mko Juan Manuel Erasun zizurkildarra. Azken honen ez zuten legebiltzarkide izate-

ko aukerarik izan, Espainiako justizia medio.

### Eskualdeko hautagaiak

Hiru urte ondoren, Patxi Lopez lehendakariak hauteskundeak aurreratzea erabaki eta urriaren 21ean jakingo dira legebiltzarkide berrien izenak. EH Bilduren zerrendan bi alkizar daude: 10. Lorea Agirre eta 18. Miren Mendiabala. Gobernu taldean, ekonomia eta ogasun arduradun gisa, Xabier Olano altzotarra dago.

EAJren zerrendan Bakartxo Tejeria bigarren postuan doa, Legebiltzarreko lehendakari gisa ezala gainera. Bederatzigarren, Luis Jesus Uribe Etxeberria asteasurra dago; 12. Jokin Bildarratz tolosarra; 20. Olatz Peon tolosarra eta ordezkietan, Maria Angeles Lazkano zizurkildarra.

Eskualdeko azken ordezkaria, Ezker Anitza-Berdeak alderdian aurkitzen da, hain zuzen ere, 25. postuan: Antton Karrera amezketarra.

**EUSKADI AURRERA**

urkullu.eu eaj pnv

PROGRAMA

Hitar emanen dit.



**Asteburua iruditán >**

**Tolosa >**



**OSASUN PUBLIKOAREN ALDE**

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde koordinakundeak elkarretaratzeari ekin zuten larunbat goizean, Tolosako Trianguloan. Osasun zerbitzu publikoaren aldeko aldarria zabaldu nahi izan zuten deialdiaren bidez, eta informazioa banatzeko mahaia eta hainbat informazio kartel jarri zituzten. **R.CALVO**

**Tolosa >**



**ONDDOAK KM 0-KO ARDATZ**

Perretxiko garaia da eta Tolosako larunbateroko azokan ere nabaritu zen hori; postu bat baino gehiagotan ikusi ahal izan ziren perretxiko eta onddoak. Azken hauek izan ziren, gainera, KM 0 ekimeneko protagonistak. Izan ere, Botarri jatetxeko Txemari Esteban eta laguntzaile bat izan ziren Zerkausian, onddoak prestatzen. Onddoekin egindako tartaletak prestatu zituzten, eta patata zukuarekin eta baratxuri beroekin lagundurik banatu zituzten herritarren artean. **R.C.**

**Tolosa >**




**MARIONA MASGRAUREN LANAK, TOPIC-EN**

Topic zentroak erakusketa berria inauguratu zuen larunbat iluntzean. Mariona Masgrauren lanak bildu dituzte oraingo honetan, eta *Bidai bat txotxongiloen mundura* izena du erakusketak. Martxoaren 10era arte egongo da zabalik, eta Mariona Masgrau kataluniarrak sortzaile gisa

egindako ibilbide osoa biltzen duten 110 pieza izango dira bertan ikusgai. Toni Rumbau txotxongiloetan adituak (lehen irudian) eta Masgrauren lagunak azaldu zenez, erakusketa «aukera aparta da artista eta titiritero gisa egin zuen lanaren berezitasuna azpimarratzeko». **R.CALVO**

**leitza >**



**AURRERA EGUN JENDETSUA IZAN DUTE**

Leitzako Aurrera kirol elkarteak bere eguna ospatu zuen larunbatean. Aurrera BTT taldearen irteerarekin hasi zuten eguna, baina gaueko askaria bitarte hamaika ekitaldi zituzten leitzarrek. Goizean zehar, haurrek, rokodromoa, tirolina eta zal-

di ibilaldiak egiteko aukera izan zuten, eta elkarreko pilota eskolako pilotarien saioa ere izan zen plazan. Eguerdiko Aurrerako dantzarien saioak jende asko erakarri zuen plazara. Bazkaria ere egin zuten Karrapen. **R.CALVO**

**Bertako informazioari bertako produktuak**

**Egin HITZAren harpidedun irailaren 3tik urriaren 26ra eta jaso artzai gazta, Idiazabal jatorri izenarekin, OPARI**

Hitzaren harpidedunen artean, bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia zozkatuko dugu

Artizana nekazalariarekin  
Zimazaga, 46  
HONDARRIBIA (Gipuzkoa)  
Tel: 943 642 337 / 655 721 834  
www.nekatur.net/artizana

Hitzaren harpidedunak:  
902 82 02 01: harpidetza@hitza.info

**hitza** info

**Tolosa** ◊**KILOMETROAK GUREAN**

2013ko Kilometroak jaia Tolosako Laskorain ikastolak antolatuko du, eta herenegun jaso zuten lekukoa Andoaingo Aita Larramendi ikastolaren eskutik. Lehenik eta behin, goizean, Andoainean, hartu zuten lekukoa, baina gero, arratsaldean, Laskorainek lekukoa Tolosari eskaini nahi izan zion, eta ekitaldi xumea egin zuten Plaza Zaharrean. J.A.

**Belauntza** ◊**AZOKA BEREZIA, PRIMERAN**

Belauntzako herritarrek herriko bertako produktuak erosteko aukera izan zuten herenegun goizean. Azoka berezia egin zuten eta askotariko produktuak bildu zituzten: barazkiak, artisautza lanak, kontserbak, gaztak... Era berean, bigarren eskuko materiala erosteko aukera ere izan zen azokan. J. AMONARRIZ

**Tolosa** ◊**LEIDOR KULTURAZ BLAI**

Leidorren kultur ekitaldi ugari izan dira asteburuan. Ohiko zine eskaintza gain, ostiralean ETB1eko telesail ezagunenaren inguruko *Goenkale*, *markesaren erretratua* antzez-lana ikusi ahal izan zen (irudian) eta larunbatean, Doctor Deseoren kontzertua. NEKA

**Tolosa** ◊**GAINDITZENEN SARIAK**

Gainditzen pertsona gorren elkarteak antolatuta, Gorren sentsibilizazio astea izan da Tolosan. Bertan, gaztetxoentzako marrazki lehiaketa egin zuten. Gorrek egunerokoan dituzten ezintasun eta trabak islatu dituzte marrazkien bidez parte hartu duten 30 inguru gazteek. Lehiaketaren sari banaketa iragan ostiralean egin zuten eta hauek izan ziren saridunak: Irati Arroyo, Irati Eizagirre eta Eider Aginagalde. Jokoak oparitu zizkieten hirurei, eta gorren hizkuntza ikasteko liburua. I. TERRADILLOS

**Zizurkil** ◊**ELKARTASUN AZOKA**

Zizurkil Goiko Intxur frontoia produktuz lepo egon da asteburuan zehar. Herrirak antolatuta elkartasuna azoka jarri zuten bertan, eta denetatik eskuratu ahal izan da: liburak, arropa, bizikletak... Era berean, igandera arte eskulan erakusketa ikusi daiteke Iriarte kultur etxean. R.C.

Soluzioak zure esku

BIHAR 19:00etan TOLOSAKO Beotibar frontoan  
**EKITALDI POLITIKOA**  
Pello Urizar eta Xabier Isasi

BOZKATU **ehbildu**



**Kirolak**↓ **Kirol emaitzak****PILOTA**

<b>LEHEN MAILAKO LAUTERDIKO TXAPELKETA</b>	
Ongay-Jaunarena	19-22
Merino I -Olazabal	10-22

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

<b>Kadeteak</b>	
<b>A. Urdapilleta (A. Saiaz)</b>	22
Txapagain	17
<b>Peña-Aburuza (A. Saiaz)</b>	22
Tartaloetxe	4
<b>Santxex-Mendia (A. Saiaz)</b>	22
Azkoitia	4
<b>Zubeldia-Zabala (Zazpi I.)</b>	22
Antigua	21

**Jubenilak**

<b>Ormazabal (A. Saiaz)</b>	22
Goierri	10
<b>Labaka (A. Saiaz)</b>	22
Intza2	1
<b>Mugika-Imaz (A. Saiaz)</b>	22
Goierri	5
<b>Galarraga-Aburuza (A. S.)</b>	22
Oiarpe2	5
<b>Etxeberría-Alberdi (A-S)</b>	22
Soraluze	21
<b>Urdapilleta-Otaegi (A-S)</b>	22
Arrasate	11

**Seniorrak**

<b>Elustondo (A. Saiaz)</b>	22
Usurbil	2
<b>Aritzimño-Jauregi (A-S)</b>	22
Aretxabaleta1	16
<b>Perez-Galarraga (A-S)</b>	19
Tartaloetxe	22
<b>Urbietta-Labaka (A-S)</b>	22
Aurrera Saiaz 2- Aurrera S.1	13
<b>Bixintxo-Biain (A-S)</b>	22
Usurbil	16
<b>Quina-Esnaola (A-S)</b>	22
Antigua	12
<b>Artola-Arratibel (A-S)</b>	22
Ilunpe1	12
<b>Urbietta-Telletxea (A-S)</b>	22
Usurbil	12
<b>Olaetxea-Tolosa (Z. Iturri)</b>	22
Hernani	14

**ARETO FUTBOLA****HIRUGARREN MAILA**

<b>2. jardunaldia</b>	
<b>Soloarte-Ibarra</b>	1-7
<b>E.T.Lakunza-S.J. Santurtzi</b>	2-4
<b>Hirukide-Zarautz KE</b>	4-4
<b>Laskorain-Gora CD</b>	4-1

**Sailkapena**

<b>1. Ibarra</b>	9p
<b>2. Bilbo</b>	9p

3. Goierri	7p
4. Soloarte	6p
<b>6. Tolosala Hirukide</b>	5p
7. Zarautz KE	5p
<b>8. Egintza T. Lakunza</b>	4p
<b>13. Laskorain</b>	3p

<b>Hurrengo jardunaldia</b>	
<b>Egintza T. Lakunza-Ibarra</b>	
Gora CD-Hirukide	
Santurtzi-Laskorain	

**FUTBOLA****ERREGIONAL OHOREZKOA**

<b>Laugarren jardunaldia</b>	
<b>Ostadar-Tolosa CF</b>	0-1
Antigua	

**Sailkapena**

1. Hernani	12p
<b>2. Tolosa</b>	9p
3. Oiarzun	9p
4. Hondarribia	9p
5. Aretxabaleta	8p

**Hurrengo jardunaldia**

Tolosa-Aurrera

**AIZKORA****NAFARROAKO LEHEN****MAILAKO TXAPELKETA**

<b>Finala</b>	
1. Floren Nazabal	30:39
<b>2. Jon Rekondo</b>	35:58
3. Ander Erasun	36:46
4. Antonio Senosiain	39:39
5. Donato Larretxea (erretiratua)	

**HARRI JASOTZAILEAK****EUSKAL HERRIKO HARRI****TXIKIEN TXAPELKETA**

<b>Finala</b>	
1. Aimar Irigoien	107 altxaldi/12.462,5 kg
2. Izeta III.a	96 altxaldi/11.150 kg
3. Izeta IV.a	91 altxaldi/10.662,5 kg
4. Xabier Ariztegi	74 altxaldi/8.650 kg
<b>5. Josetxo Urrutia</b>	69 altxaldi/8.087,5 kg

**SASKIBALOA****Maila nagusia**

<b>Bigarren jardunaldia</b>	
<b>Bide Bide Ibiza-Padura</b>	86-79

**Sailkapena**

<b>1</b>	<b>G</b>
1. Seky.es	2
<b>5. Bide Bide</b>	1

**Hurrengo jardunaldia**

Autocares Artieda-Bide Bide

# Bere markatik urrun aritu da Urrutia Harri Txikien Txapelketan

Bosgarren egin du, 69 jasoaldi eginda; Aimar Irigoien errezildarrak seigarren urtez jarraian jantzi du txapela



Iñigo Terradillos Leitza

Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketa jokatu zuten iragan larunbatean, Labaienen. Bertan Josetxo Urrutia leitzarrak parte hartu zuen, baina bere mailarik onena eman ez, eta azken postuan geratu zen, bosgarrenean.

Urrutiarekin batera, Xabier Ariztegi *Santxin* Etxalarkoa (Nafarroa), Jesus M. Iruretagoiena Izeta III.a aiarra, Hodei Iruretagoiena Izeta IV.a zarautzarra eta Aimar Irigoien errezildarra lehia ziren. Hain zuzen ere, azken hau izan zen garaile. Honenbestez, seigarren urtez jarraian jantzi du txapela Errezilgoak.

125 kiloko koadroa, 125 kiloko zilindro kopa, 112,5 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola altza behar zituzten harri jasotzaileek. Harri bakoitzarekin hiru minutuko denbora zuten altxaldiak egiteko.

Zozketa egin ondoren, Ariztegi izan zen lehena harriak altzatzeko, eta bigarren Urrutia. Irabazlea, berriz, azkena izan zen lanari ekiten. Pasa den urteko marka

berdindu ahal izan zuen, 107 jasoaldi eta 12.462,5 kilo altza. Marka hori da azken zazpi urteetako markarik onena.

Izeta III.a sailkatu zen bigarren, 1.312,5 kilo eta 11 jasoaldiko aldearekin. Azken bi urteetan parte hartu gabe egon ostean lehiara itzuli zen larunbatean Izeta. Izeta IV.a bere iloba sailkatu zen hirugarren postuan, laugarren Xabier Ariztegi eta bosgarren Josetxo Urrutia.

Leitzarra bere ohiko marka baino beherago aritu zen. 69 jasoaldi egin zituen larunbateko proban. Iazko txapelketan 80 jasoaldi egin zituen, eta 2009. urtekoan, 81 egitera iritsi zen. Pasa den urteko Harri Txikien Txapelketari dagokionez, laugarren geratu zen Leitzakoa. Bestalde, jokatu berri den Nafarroako Harri jasotze Txapelketan bigarren izan da Josetxo Urrutia.

©Leitzaldea@hitza.info

## Denboraldiko lehen garaipena erdietsi du Laskorain taldeak

Gernikako Gora taldearen aurka 4-1 irabazi ostean, lehen hiru puntuak batu ditu talde horitxoak

**Unai Barriola Tolosa**

Ligako lehen bi jardunaldien ostean sailkapenean punturik ez izateak sor lezakeen bertigoak alde batera utzi eta zaleen aurrean lehen garaipena eskuratzeke sinesmen osoarekin agertu ziren larunbat arratsaldean ikastolako jokalariek Usabalera. Etxeko en egoera berean zegoen Gernikako Gora taldea zuten aurkari eta partida oso txukun bat jokatu ostean 4-1 nagusitu zen Laskorain.

Partidak lehen minututik nagusi izan zen ikastolako taldea, Aitorrek zuzendutako mutilen zonakako defentsak baloi ugari lapurtzeko aukera eman zien etxekoei eta presio larroa aurre-

ratutakoan ere, aurkariak ezin baloia jokatu atera eta taldekerik bilatzen ez zuten pase luze-etara jo behar izan zuten.

Defentsan egindako lan onaren ondorio izan ziren lehen zatian lortutako hiru golak, lehen erdian bereganatutako bi baloi zein baino zein jokaldi politagoekin errematatuz.

Atsedenaldirik Bikutz tabernak eskainitako saskia zozketatu ondorenean ere partidak bere horretan jarraitu zuen. Gernikarren intentsitateak behera egin zuenean aukera garbi eta ugari izan zituen Laskorainek alde areagotzeko, atezainaren lan ona eta jokalaririk horitxoaren kontzentrazio faltak orde markagailua bere horretan mantendu zuen.

Etxekoentzako arrisku bakanra bigarren zatian pilatutako falta ugarien ondotik iritsi zen,

inozoki egindako hanka sartzeen ondorioz 10 metrotako bi jaurtiketa izan baitzizuten aurkariak. Dena den, Endika seguru aritu zen bi jaurtiketetan eta denboraldi hasiera honetako zirrarara bilakatu den Eñautek laugarren gola egindakoan partida erabakita geratu zen.

Norgehiagokaren azken hondarrea aurkariak egindako golak 4-1 emaitzaren itxi zuten 3 puntuak eskuratzeaz gain, pasa den denboralditik zetorren dinamika txarra eten eta konfiantza berreskuratzeko balio behar duen partida hau.

Gustura irten ziren larunbatean Usabalera gerturatutako zaleak, lehen taldearen garaipenaz gain harrobiko beste bi taldeek ere aurrera atera baitzizuten euren partidak. Ondorioz, sailkapenean puntan dira harrobiko bi taldeak. Usabalen Javi ordezkarria, Aitor entrenatzailea, Endika, Gil, Murgi, Telleria, Vázquez, Ekhi, Joniko, Etxebe, Lander eta Aratz izan ziren.

**Donostia aldeko logistika enpresa batek KOMERTZIALA behar du, Gipuzkoa eta inguruko herrialdeetan lan komertziala egiteko.**

**Eskaerak dira:**

- Gernikako Gora taldearen logistika enpresa batek
- Komertziala lanetan espezializatuta izatea
- Herrialde desberdinetan lan egiteko gaitasuna
- Gude-lanetan lan egiteko gaitasuna

Bidali curriculuma: [gizabaliabideak@bidera.eu](mailto:gizabaliabideak@bidera.eu) helbidera, KDM-ET-2012 enreferentzia jarrita.

# Aitziber Ibarbia Zirkuitu Bertikalen txapelduna

Zizurkildarra bigarren sailkatu da Anbotoko Bertikalean, eta lehenengo postua eskuratu du orokorrean

## I. Terradillos

Anboto Bertikala proba izan zen pasa den larunbatean, eskualdeko hainbat kirolariren parte hartzearekin. Aitor Urkola anoetarrak, esaterako, 15. postuan amaitu zuen sailkapen orokorrean, eta 23 urtez azpikoan lehenengo izan zen. Emakumezkoetan, berriz, Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan zen bigarren, eta sailkapen orokorrean, 42. postuan amaitu zuen. Orotara, 160 lagunek bukatu zuten proba.

Urkola eta Ibarbiaz gain, ondorengo ere bukatu zuten: Eneko Garmendia baliarraindarrak 21. egin zuen, Patxi Azpiroz anoetarra 30. izan zen, Nerea Amilibia zizurkildarra laugarren izan zen emakumezkoetan, eta 45. orokorrean, Iñigo Lizarribar berastegierra 46. eta Mikel Sanchez ibararra 162. izan zen. Aritz Egea urretxuarra izan zen azkarrena



Aitziber Ibarbia zizurkildarra, larunbatean, Anboto Bertikalean. HITZA

gizonezkoetan, eta emakumezkoetan, Aldeanueva de la Verako Vanessa Ortega.

Anbotoko probarekin bukatu da aurtengo Euskal Herriko Kilmetro Bertikalen Zirkuিতua. Lau

proba izan dira denera, eta guztien puntuak batu ondoren, Aitziber Ibarbia izan da emakumezkoetan irabazlea. Gizonezkoetan, berriz, Hassan Ait Chaou billabonatarra bigarren geratu da.



Jon Rekondo leitzarria bigarren geratu zen herenegungo finalean. HITZA

# Jon Rekondo Nafarroako txapeldunorde

Floren Nazabalek irabazi du Nafarroako Aizkora Txapelketa; 5 minutu eta 19 segundoko aldearekin

## I. Terradillos Leiza

Jon Rekondo leitzarria da Nafarroako lehenengo mailako Aizkora Txapelketako txapeldunorde berria. Etxarri Aranatzek jokatu zen herenegun finala, eta Floren Nazabalen atzetik sailkatu zen.

Leitzarria eta Nazabal etxarriaranaztarrarekin batera, Aurtiz-Iturengo Ander Erasun, Olagueko Antonio Senosiain eta Arantzako Donato Larretxea aritu ziren txapelaren lehian. Euren egitekoa lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko ebakitzea izan zen.

Nazabal zen faborito, eta nagusitasun osoz irabazi zuen bere herria jokatu zen txapelketa. Proba hasi eta berehala aurrerat

zen, eta aldearekin joan zen pixkanaka. 30:39ko denbora behar izan zuen lan guztia amaitzeko.

Bere atzetik sailkatu zen Rekondo, 35:58ko denborarekin. Leitzarrik, ordea, gogor borrokatu beharra izan zuen bigarren postua lortzeko. Erasun bere aurretik jarri zen, baina segituan hartu zion aurrea Rekondok. Oso parekatu iritsi ziren bukaerara, baina, azkenean, lehia ikusgarri baten ostean, 48 segundoko aldearekin leitzarrik lehenago amaitu zuen.

Dena den, kontuan hartu behar da, Donato Larretxeak ezin izan zuela saioa amaitu, bizkarrean izan zuen minagatik. Arantzako aizkolaria lehen 60koan hasi zen arazoa izaten, eta lehen oinbikoa amaitzen lanak izan zituen. Bera ere faboritoetako bat zen.

Pasa den urtean Donato Larretxea izan zen irabazlea, eta Rekondo hirugarren geratu zen. Aurriko hiru urteetan, berriz, Nazabalek irabazi zuen txapelketa.

# Mikel Olazabal eta Jon Jaunarena, Lau t'erdiko final laurdenetan

## I. Terradillos

Jon Jaunarenak eta Mikel Olazabalek aurrera egin dute bigarren mailako Lau t'erdiko Pilota Txapelketan, eta final laurdenetara pasa dira, iragan asteburuan jokatu dituzten partidak irabazi eta gero.

Olazabalek Santo Domingo de la Calzadan jokatu zuen kanporaketako partida, iragan ostiralean

Merinoren I.aren aurka, eta 22-10eko emaitzarekin gailendu zen, nagusitasunez.

## Jaunarena, ikusgarri

Asteburuko partidarik eta jokorik ikusgarriena leitzar pilotariak eskaini zuen. Herenegun jokatu zuen Eibarren, Ongayren aurka, 19 eta 22 irabaziz. Bazirudien, ordea, Ongayk eramango zuela partida, eta berak egingo

zuela aurrera txapelketan, 16-7 aurreratu baitzen. Jaunarenari kosta egin zitzaion partidaren sartzea, eta Ongayk, gainera, min handia egin zion sakez. Bi arrazoi horiengatik 9 puntuko alde aterazioa.

Leitzarrik, baina, ez zuen etsi, eta pixkana maila handituz joan zen, markagailua parekatu, eta buelta eman arte.

● [leitzaldea@hitza.info](mailto:leitzaldea@hitza.info)

## Hilberriak eta urteurrenak

# ESKELAK

943-65 56 95

[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



**JUANJO LEUNDA PEDRERA**



*Atsekabe une hauetan gure besarkadarik estuena*





GOIZA	ZERUJESTALIA
ARRATSALDEA	HOJETA
BEROENA	23°
HOTZENA	17°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaurdi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

# Auzo txikia izan arren, jai handiak Ugarten

Akelok Guraso Elkarteak urteroko zozketa egin du jaietan; hiru egun izan dituzte festaz gozatzeko

**Rebeka Calvo** Amezketa

Eskualdeko festak azken ondarrera iristen ari dira, eta Amezketa Ugarte auzoko jaiak ere agur esan diete jaiak. Ostiralean bota zuten suzuria, eta asteburu osoan zehar hainbat ekitaldi izan dituzte. Lehen egunean herri afaria izan zuten, eta ondoren, trikiti doinuak izan zituzten lagun.

Larunbatean, pilota partidak, haurrentzako puzgarriak eta bes-telako jokoak, urteroko zaldi ibilaldiak, trikitaliak eta zahagi ardo izan zituzten. Nola ez, herri kirol saioa izan zen ingandean. Aizkoran Jon Irazua eta Ugaitz Mugertza aritu ziren, eta harri jasotzen Unai Lertxundi eta Urtzi Telleria. Auzotarrek ingurutxo ere dantzatu zuten kirol saioaren ondoren. Jaiak, sagardo dastatzearekin eta Laja eta Landakanda trikitaliaren saioarekin amaitu zituzten.

## 2.587 da zerbaki saritua

Urtero bezala, Amezketa Akelok Guraso Elkarteak zozketa egin du, Ugarteko jaietan. Aurten zerbaki saritua, 2.587 izan da. Saritua izan den txartela duenak asteburua nekazal turismo batean eta 300 euroko saria jasoko ditu.

● alegialdea@hitza.info



Larunbatean txikiak hainbat joko izan zituzten. R. CALVO



Herri kirol saioa izan zen, ingandean. JONE AMONARRIZ

## Agurak



### Zorionak Manex!

**Manex Esnaola.** 7 urte, zorionak bereziki Naroa eta etxekoan partetik.

**AGURRAK**  
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurak**

## Agenda

### DEIALDIK

- **Anoeta.** Qi-Gong ikastaroa martxan jarriko du urritik abendura, udalak. Oraindik tokia gertatzen da, eta interesatuek udaltxean edo liburategian izena eman dezakete urriaren 17a bitartean. Irakaslea Jone Arrospide izango da, eta menopausiaren bueltan dabilzan emakumeentzako da. Klaseak egun hauetan izango dira: urriak 18, azaroak 8 eta 22, abenduak 13 eta 20 (edo 27), 18:30etik 20:30era. Mikelasagati auditotxian izango dira, eta 45 euro ordaindu beharko da.
- **Tolosa.** Hauteskundeetako bozka posta bidez bideratu nahi duten herritarrei laguntza eman nahi die, EHbilduk. Horretarako, Tolosako alkartetxera zuzendu behar da: gaur, 16:00etatik 18:00etara eta bihar, 11:00etatik 13:00etara izango da aukera.
- **Tolosa.** Inmakulada ikastetxean begirale ikastaroa egingo da, urriaren hasi eta ekaina bitartean. Ostegunetan 15:00etatik 20:00etara izango da. Informazio gehiago 944 35 43 40 telefonora deituz edo [aisiola@ikas-tola.net](mailto:aisiola@ikas-tola.net) helbidera idatziz.
- **Tolosa.** Antxon Bandres Bi-daiarien Txokoan, urriko asteaz-

kenetan, bidaia blogak nola egin irakatsiko da. 18:00etatik 20:00etara izango dira klaseak, eta wordpress bidez bidaia blog bat eginen ikasiko da, doan. Banaka edo binaka egin daitezke ikastaroa. Izena [bidaiari@bidaiarentxokoa.info](mailto:bidaiari@bidaiarentxokoa.info) helbidera idatziz edo 688 810 598 telefonora deituz eman daitezke.

### ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Box.A elkartearen *Pornografia* eta Tolosa Gasa eta Tolargik 2013ko egutegia osatzeko erabiliko dituen argazkien erakusketak daude, Aranzburu Jauregian.

## Farmaziak

### GAUR

- **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz Lete, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar Kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanenen etairtitzien erantzukizunik.



**Mauka berria**

**Laster...**

planik onenak egunero, bertatik bertara!

**Egun-pasak familiarekin, jatetxeak, abentura, kirol ikuskizunak, antzerkia, estetika... merke-merke eta eskura**



**Abantailak izena ematen duten lehenengoentzat**

Urriaren 31 baino lehen izena ematen baduzu, parte hartuko duzu Kanaria uharteetara astebete doan joateko zozketan.

Erroki bidaiak agentziaren eskutik

**EROSKI bidaiak**  
merkeki doan

**www.mauka.eu**

mauka: erraz lortzen den gauza oso onuragarria. Harluak Hitzei Enziklopedikoa

**berria**  
Tolosa